



Lepo izango dira erdialdeko kaleak eta Zumardia bihar, giro paregabearekin. I. Saiz

# Euskal giroarekin eta sagardoarekin gozatzera, plazara

Sagardo Egunaren hogeita hamaseigarren ekitaldia ospatuko dute bihar. Horren barruan, 40 sagardotegitako uzta gozatzeko aukera izango dute egun osoz bertaratzen direnek, euskal giroan murgilduta.

## IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Sagardo Eguna egingo dute bihar Errenteria-Oreretan, hogeita hamaseigarrenez. Aspaldian erreferente bihurtutako jaiaren bueltan 40 sagardotegitako uzta probatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Sagardoa erruz, biharkoan, baina baita euskal giroa ere txoko guztietan, eta horiekin batera, usadioa, jai giroa, aurtengo uzta, dantza, lagun artea, txalaparta, bertsoak eta irrintziak.

Jai handia posible egiten dutenei, airtortza. Aurtengo omenduak, hiru: Manolo Martin, Eli San Sebastian eta Joxean Otegi: «Ezinbestekoak zarete jaiaren antolaketarako. Hasieratik eskaini diozue gogoia, ilusioa, izerdia eta denbora jai handi honi».

Jendetza bilduko da plazara, ohikoa den moduan, eta egunaren antolatzaile diren elkarte gastronomiko eta bestelako eragileek deia egin dute jai giroan euskaraz aritzeko, txotx eta lagun artean sagardoak eta euskarak zipriztindu dezaten ingurua. Eraso sexistarik ez dutela onartuko argi eta ozen esan dute, eta nabarmen jarri dute «errespetua» dela euren ardatza: «Lanean ari denarekiko errespetua, baita elkarrenganako zaintza ere».

Keinua, antolatzaileek, Palestinari: «Oreretako Sagardo Eguna elkartasuna adierazteko unea ere bada, eta genozidua pairatzen ari den Palestina izan nahi dugu gogoan. Bihar gozatzeko aukera izango duzue askok, baina gogoan izan beste batzuk sufritzen ari direla». ✕

Garbi jokatu  
Sagardo  
Egunean!

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Irunen eta Beran

aurkituko gaituzu

943 63 45 36

[www.goieko.com](http://www.goieko.com)

# Omenduak, ezinbesteko zutabe antolakuntzan

Oreretako Sagardo Eguneko antolakuntza taldeak hala erabakita, hiru kideren jarduna errekonozitu dute aurten: Manolo Martinena, Eli San Sebastianena eta Joxan Otegiarena. Haien lan «nekaezina» goratu dute.

MIKEL DEL VAL

Sagardoaren festak Errenteria-Oreretako kaleak hartuko ditu bihar. Eguna egikaritzeko bidea nekeza izan da lantaldearentzat, baina oztopoak oztopo, hemen da Oreretako XXXVI. Sagardo Eguna. Tradizioei eutsiz, aurten ere Sagardo Egunaren alde lan «nekaezina» egin duten pertsonak omendu eta goraipatu ditu antolakuntzak, haiek gabe ezinezkoa bailitzateke eguna egikaritzea.

Aurten hiru kideren jarduna errekonozitu eta bistaratu dute: Manolo Martinena, Eli San Sebastianena eta Joxan Otegiarena. Hiru pertsona horiek izango dira aurtengo omenduak, «ezinbestekoak» izan baitira Sagardo Egunaren antolakuntzan. «Hasiera-hasieratik eskaini diote bere gogoia, ilusioa, izerdia, dudamudatan ibiltzea eta denbora horrelako jai bati; hastapenetik gehienek, gainera», esan dute antolatzaileek. Idokia Arbelaitzen eta Juanfer Ricoren lekukoa hartu dute, haiek izan baitziren iazko omenduak.

## SAGARRONDOAREN LANDAKETA

Hiru kideek iragan larunbatean jakin zuten haien ibilbidea errekonozituko zutela, Foru plazan egindako aurkezpenean. Aurkezpenaren kokalekua izan da aurtengo berritasunetako bat, Xenpela-



Hilaren 20ko aurkezpenean jakinarazi zituzten aurtengo omenduak. Imanol Saiz

rrren egin baitzen eta ez Arramendin. Martin izan zen bertaratu zen bakarra, eta ezustean harrapatu zuen albisteak. Hunkituta jaso zuen oroigarria.

Martin, San Sebastian eta Otegi lau esaldi laburretan deskribatzea ezinezkoa dela adierazi zuten antolatzaileek; «liburu mardul oso bat beharko genuke pertsona paregabe horiek nolakoak diren azaltzeko». Lantaldeak esker mezurik «xume» eta «handiena» helarazi

zien, eta honakoa berretsi zuten: «Zuek gabe ez legoke Oreretako Sagardo Eguna. Jakin dezala herriak Manolo, Eli eta Joxan bezalako pertsona nekaezinek talde lanean, komunitatean, herrigintzan eta euskalgintzan sinesten dutela».

Aurkezpenaren ondoren, Arramendira abiatu ziren Martin eta antolatzaileak, eta hiruen izenean sagarrondoia landatu zuten han, Oreretako Sagardo Egunaren sagastian. ✕

ONGI PASA SAGARDO EGUNA!

# Beerlagun

[www.oarsoak.com](http://www.oarsoak.com)

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN  
TEL. 943 49 01 62. [oarsoak@oarsoak.com](mailto:oarsoak@oarsoak.com)

# SINDIKATO

--- KAXUELITAK --- PINTXOAK --- TABERNA  
--- PLATER KONBINATUAK ---  
--- OGITARTEKOAK ---

*Ongi pasa Sagardo Egunean!*

Madalena kalea, 38 / 943 34 61 83 / Orereta



Eguraldia lagun, lepo bete zen Foru plaza XXIX. Sagardo Egunari harrera egiteko. I. Saiz

## Oztopoak oztopo, hemen da XXXVI. Sagardo Eguna

MIKEL DEL VAL

Sagardo usaina herriko kaleetan barrena barreiatuko da bihar. Sagardoaren festa-  
ren XXXVI. ekitaldiak Errenteria-Ore-  
retako kaleak hartuko ditu, eta egun  
handia errealitatea bada ere, hura egika-

ritzeko bidea neketsua izan da antola-  
kuntzarentzat. Gorka Urruzola da Ore-  
retako Sagardo Egunaren antolaketan la-  
nean ari den kideetako bat, eta onartu  
du dena «primeran» atera dela, eta «go-  
gotsu» daudela eguna iristeko. Hala ere,  
oztopoak izan dituzte bidean, aurten  
jende gutxi bildu baita lanerako. Hori

dela eta, lan karga «handia» izan dute  
sagardoaren festa antolatzeaz ardura-  
tzen ari diren pertsonak. Urruzolak ai-  
tortu du «deskoordinazio» puntu bat  
izan dutela aurten, baina ziur da «inflexio  
puntu bat» izango dela datozen urte-  
teetara begira gauzak ezberdin egiteko.

Sagardo usaina goizeko lehen ordutik  
nabarituko da. Tradizioari helduz, eta  
hemen dator aurtengo berritasun nagu-  
sia, idiek garraiatuko dute sagardo ku-  
pela herriko kaleetan zehar, horrela egi-  
ten baitzuten euskal sagardogileek an-  
tzinean. Aurreko urteetan astoek  
eramaten zuten kupel hori, baina aurten  
lan hori egiteaz idiak arduratuko direla  
adierazi du Urruzolak. Idiek gurdi bat  
garraiatuko dute, eta hor joango da ku-  
pela txotx egin ahal izateko. Kalejira  
11:00etatik 12:00etara izango da, eta  
Foru plazan bukatuko dute ibilbidea,  
goizeko txotx irekiera egiteko. Denbora  
horretan, dultzaineroek, trikitilariak,  
txistulariak, dantzariak, txalapartariak  
eta bertsolariak eguna girotuko dute.  
Arratsaldeko txotxa, aldiz, 18:00etan  
hasiko da, Zumardian. Kale animazioak  
ez du etenik izango.

Eguraldi ona egiteko irrikan daude an-  
tolatzaileak, eta Foru plaza eta Zumardia  
dira, urtero bezala, txotx irekierak egi-  
teko hautatu dituzten kokalekuak. Dena  
den, ordezko plan bat badute euria egin-  
go balu: Linoko karpata lekualdatuko lu-  
kete festa, iaz egin zuten bezala.

**EGI-LUZE**  
ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA

943 52 39 05

Zamalbide Auzoa, Listorreta bidea.  
ORERETA-ERRENTERIA

**TXOOOOOTX!**  
**KABALA**

etxe - animalientzako pensu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14  
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

ETXERAKO ZERBITZUA  
AUTOZERBITZU GARRIGAILUA  
ILEAPAINDEGIA AUSTRIKO HITZORDUA

**ARKAITZA** taberna

*Gutxi eta maiz, umore alaiz!*

Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA

### HERRITARREI DEIA

Sagardo Eguneako lantaldeak dei egin die  
herritarrei lagun artean eta hurbilekoe-  
kin sagardoaz gozatzeko eta herriko kale  
eta plazak betetzeko. Urruzolak nabar-  
mendu du Sagardo Eguna jai puntuala  
dela herrian, eta jendeak «gogoz» har-  
tzen duela eguna. Aurten ere jendea ger-  
turatzea eta elkartzea espero dute, jai  
«polita» izateko.

Horrez gain, sagardoaren festa euskal  
giroan eta errespetuz gozatzera animatu  
dituzte herritarrak. Urruzolak baietsi  
du Sagardo Eguna euskal jai bat dela, eta  
sagardoa euskal kulturaren parte dela:  
«Euskara da euskaldun egiten gaituena,  
eta euskarazko jai bat izatea bultzatzen  
dugu». X



laz eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende ugari ibili zen Zumardian. Imanol Saiz

## Sagardoa erruz, eta musika, dantza eta jatekoak ere bai

### IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Sagardoa izango da nagusi, ez dago zalantzarik. Baina haren bueltan egitarau oparoa ondu dute Sagardo Egunaren antolatzaileek goiz eta arratsalderako. Eguerdiaren egingo dute eguneko lehenengo txotxa Foru plazan. Horren aurretik, garai batean egin ohi zen moduan, idiek garraiatuko dute sagardo kupela herriko kaleetatik barrena. Goizgoizetik izango da, gainera, kale animazioa: dultzaineroak, trikitilariak, txistulariak, dantzariak, txalapartariak eta bertsolariak arduratuko dira jai giroa jartzeaz.

Arratsaldean helduko da bigarren txotxaren txanda. Zumardian izango da bigarren hori, eta une horretan 40

sagardotegiren uzta dastatzeko aukera zabalduko dute. Horretarako, beharrezkoa izango da edalontzia hartzea. Zumardian izango dira salgai, eta edalontziaz gain, jaiaren zapia, pintxo bat jateko txartela, eta sagardotegi batean zozkatuko den bazkarirako zenbakia ere jasoko dute erosleek. Jatekoek ez dute hutsik egingo; hainbat talogile izango dira egun osoan zehar, eta Eusko Labelek erreko du txahala. ✕

### EGITARAUA

#### Goizean

**11:00.** Orain zenbait hamarkada bezala, idiek garraiatuko dute sagardo kupela gurdian herriko kaleetan barrena, euskal sagardogileek antzinean egiten zuten moduan.

**12:00.** Aurtengo Sagardo Egunaren lehen txotx ofiziala egingo dute, Foru Plazan.

**Goizean zehar.** Kale animazioa Erdialdeko kaleetan goiz osoan: dultzaineroak, trikitilariak, txistulariak, dantzariak, txalapartariak eta bertsolariak.

#### Arratsaldean

**18:00.** Aurtengo Sagardo Egunaren arratsaldeko txotx ofiziala, Gamon Zumardian. 40 sagardotegitako uzta dastatzeko aukera izango da bertan jarriko dituzten postuetan.

**18:00.** Txahala erretzen bukatuko dute, eta arratsaldean zehar hura dastatzeko aukera izango da. Txartela erosi behar da horretarako.

**Arratsaldean zehar.** Kale animazioa kaleetan barrena arratsaldean: dultzaineroak, trikitilariak, txistulariak, dantzariak, txalapartariak eta bertsolariak.



**Txootx!** Madalen kalea, 2 behea · Erreneria  
[inmomelania@gmail.com](mailto:inmomelania@gmail.com)  
**MELANIA** 943 053 642

· Donostian, Errenerian, Lezon, Oiartzunen eta Pasaian salmenta eta alokairuarekin lan egiten dugu ·

943 340 342



RADIO TAXI

VITERI

ERRENERIA

radiotaxiviteri@hotmail.com

BETIKO TAXIA

BETIKO ZENBAKIA

24 orduko

zerbitzua